

Lehendakaria hautatzeko bigarren itzulia egin beharko da Ukrainian

Leonid Kravtxuk egungo estatuburuak irabazi arren ez du gehiengo osoa lortu


Behin-betiko emaitza ofizialek ezustekorik ematen ez badute behintzat, Ukrainian beharrezkoa izango da lehendakaria hautatzeko bigarren itzulia egitea. Igandeko saioan Leonid Kravtxukek lortu zuen boto gehien, baina ez lehenengo itzulian garaile ateratzeko behar den adina.

KIEV

Kalkulu ez ofizialen arabera, Ukrainiako lehendakariak botoen % 40 eskuratuko lituzke gutxi gora-behera. Kravtxukekin batera hauteskunde hauetako favorito nagusia zen Leonid Kutzma lehen ministro ohiak, berriz, botoen % 20 inguru. Gainontzeko botoak hauteskunde presidentzialetara aurkeztu diren beste bost alderdiek jaso dituzte.

Emaitza ofizialak iragarpenen antzekoak baldin badira, bigarren itzulia egitea behar-beharrezkoa gertatuko da. Ukrainian indarrean dagoen legediaren arabera, lehen itzulian lehendakari hautagai bat lehendakari bihurtuko bada beharrezkoa du botoen erdiak eta bat gehiago lortzea. Eta hauteskundeak zaintzen aritu diren behatzaileen arabera, emaitza ofizialak ez dira asko aldatuko: Kravtxuk garaile gertatuko da mendebaldean, eta Kutzma ekialde eta hegoaldean.

Izan ere, Kravtxukek boto nazionalista jasotzen du, eta nazionalistak mendebaldean biltzen dira batipat. Kutzma, aldiz, Ukraina eta Errusiaren arteko harremanak estutzearen aldekoa



Leonid Kravtxuk, botoa ematera zihola.

da, eta hala, Ukrainiatik bereizi eta Moskuko agintarien altxora gerturatu nahi duten inguruetan jasotzen du botorik gehien, Krimeneko errepublikan besteak beste. Itsaso Beltzeko penintsula honetan, hautesleen % 82,5ek bozkatu zuten Kutzmaren alde, eta % 7,43k besterik ez Ukrai-

niako egungo lehendakariaren alde.

Hala ere, emaitza hauek kolpe gogorra izan dira Iuri Mexkov Ukrainiako lehendakari independentistarentzat. Ez emaitzak kaltekoak zaizkiolako —bera bezala Errusiaren aldekoa bata Kutzman— herritarrek hautes-

lekuetara erruz jo zutelako bai-zik. Krimen nahi independentisten erakusgarri, Ukrainiako hauteskundeetan ez bozkatzeko eskatu zien Mexkovek herritarrei, baina herritarren % 60 gerturatu zen hauteslekuetara.

Hain justu, partehartze handia izan zen igandeko hauteskundeetako datu bereizgarrietan. Datu ofizialen arabera, % 68 herritarrek bozkatu zuten, batez beste, lehendakaria hautatzeko. Ukrainiako legeak dioenez, hauteskundeak baliozko izan daitezten, beharrezkoa da herritarren erdiek gehi batek gutxienez botoa ematea.

HAUTESKUNDE BATZORDEA ISILIK

Haiteslekuak itxi eta 24 orduren buruan, Hauteskunde Batzorde Nagusiak artean ez zuen zenbaketei buruzko daturik zabaldu. Komunikabideek gogor kritikatu zuten jarrera hau, eta irratia «hutsune informatibotzat» jo zuen egoera. Valentin Kirtxenko Batzordeko lehendakariak lehen emaitzak atzo iluntzean iragarriko zituztela azaldu zuen, ahalik eta informazio «zehatzena» eman nahi zutela arrazoituta.

Hauteskundeetara aurkeztu ziren hautagaiek ez zuten atzo deklaraziorik egin nahi izan. Hauteskundeetako emaitzak iragarri ondoren hitz egingo zutela agindu zieten kazetariei.

Hauteskundeak zaintzen aritu diren behatzaileak, gainera, kexu agertu ziren atzo, ezin izan baitzuten Ukrainiako eskualdeetatik jasotako botoen zentralizazio prozesua kontrolatu. Hala ere, ez zuten iruzurra izan denik aurreratu nahi izan.

LABURREAN

TXINA: urte erdian 1.400 droga trafikataile exekutatu dituzte

Azken sei hilabete hauetan ustez droga trafikatzeko aritzeagatik 6.000 lagun atxilotu dituzte Txinan, eta hauen artean 1.400 exekutatu. Urte hasieratik hona, droga atzeman eta trafikatazileak atxilotzeko kanpaina gogorra bultzatu dute. Kanpaina honetako operazioak garrantzitsuena joan den astekoa izan zen: 1.408 kilo marihuna atzeman zituzten, eta 94 lagun exekutatu.

ATENTATUGILEA identifikatu dute Iranen

Irango agintariek joan den ekainaren 20an Iman Razako meskita 25 lagun hil eta 70 zauritu zituen atentatuaren erantzulea identifikatu dute. Irango Informazio Zerbitzuko bozeramaile batek jakinarazi zuenez, lehergaia Mahdi Nahvi izeneko gizonezko batek jarri zuen, Mujaidik Jalq (Herriaren Borrokalariak) taldeko kidea bera.

GERRA erregimentu bati eraso diote Errusian

Kaliningradon ofizial bat hil zen atzo 19 urteko soldadu batek gerra tankeen erregimentuaren aurka egindako erasoan. Iturri ofizialek zabaldu zuten, ofiziala bi soldadurekin goardia postuan zegoela, gazte bat gerturatu eta ametrailadorez eraso zuten.

Alemaniko hauteskunde erregionaletan izugarrizko jipoi jaso dute liberalek

BONN

Igandean Alemaniako hauteskunde erregionaletan egindako hauteskundeak aldeko gertatu zaizkio Helmut Kohl Alderdi Demokristauroi (CDU) baina ez berak Alderdi Liberalarekin (FDP) batera zuzentzen duen koalizioari. Ekialdeko Saxonia Anhalt estatu federatua, demokristauek beharrez egin zuten orain lau urte egindako hauteskundeekin konparatuz gero. Baina jaitsiera ez zen ez inkestek ez eurek iragarri zuten adinakoa izan, eta lehenengo postuari eutsi ahal izan zioten.

Botoen % 34,4 eskuratu eta uste baino alde handiagoa aterazio Alderdi Sozialdemokratari

(SPD). Sozialdemokraten 1990 hauteskundeetatik zortzi puntu egin zuten gora, baina % 34an geratu ziren, CDU ezin garaiturik. Kohl harro egon liteke beraz, bere alderdiak lortutako emaitzengatik. Ez ordea berak zuzentzen duen koalizioak lortu dituenengatik. Izan ere Bonnek Gobernuari gehiengo osoz agintzea ahalbidetzen dioten liberalek sekulako porrota jaso baitute, ekainaren 12ko emaitzak berretsita. Klaus Kinkel Atzerri ministroaren FDP alderdiak ia hamar puntu galdu ditu. Botoen % 3,6 besterik ez du lortu, eta beraz estatu hartako Parlamentutik kanpo geratu da Strassburgetik geratu den bezalaxe.

Saxonia Anhaltoko emaitzak

datorren urriaren 16an egingo diren hauteskundeetan errepikatuko balira, Kohlek galdu egingo luke agintea. Ez ordea bere erruagatik, liberalenagatik bai-zik.

Bestalde, Sozialismo Demokratikoaren Alderdiak (PDS, Alemania ekialdeko komunista ohiek sortua) nabarmen egin du gora. Orain lau urteko hauteskundeetatik hona ia zortzi-puntu egin du gora, eta Saxonia Anhaltoko hirugarren indar bihurtu da.

Orain urte bete desagertzeaz zegoela zirudien PDSk, baina orain honetan botoen % 19,9 lortu du. Hemendik aurrera kontutan hartu beharko den alderdia izango da dudarik gabe.

Pasaiako

IRAGARKIA

Gipuzkoako Foru Diputazioko Ogasun eta Finantza Departamentuko Tributu Lokalen Zerbitzuak 1994ko ekitaldirako egindako Hiri eta Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren urteko Erroldak jadanik eginak dituzenez argipideketa publikora jartzen dira. Zerga hau erregulatzen duen uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araueko 21.2 artikuluan xedatutakoa betez, ondorengo arauen arabera:

a) Erroldak ikusgai aurkitzen dira Kontuhartzaitzaren Departamentuan (San Juan kalea 136) astelehenean ostiralera 9tatik 2tara.

b) Aztertze epea hamabost lanegunetako izango da iragarki hau gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamuneko lanegunetik kontatuta.

c) Erreklamazioak Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztuko dira bulego orduetan.

d) Erreklamazioak aurkezteko epea 15 lanegunetako izango da, b) atalean adierazitako moduan kontatuta.

Pasaiako 1994ko maiatzak 31.